



**IRABAZIA ASMORIK GABEKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2025 URTEKO DEIALDIA, KIROL BARNEKO JARDUERA ETA HEDAKETA BULTZATZEKO EKINTZAK ANTOLA ETA BIDERA DITZATEN.**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DEL AÑO 2025 PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LAS ASOCIACIONES Y CLUBES DEPORTIVOS SIN ANIMO DE LUCRO PARA EL DESARROLLO Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DE FOMENTO Y PROMOCIÓN DEPORTIVA.**

**1.- Xedea.** Deialdi honen xedea ondoren adierazten diren dirulaguntzak arautzea da:

- Irabazi asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeek sortutako defizit ekonomikoa arintzeko dirulaguntzak ematea, kirol arloan barneko jarduera eta hedaketa bultzateko ekintzak antola eta bidera ditzaten, norgehiagoka erregimenean emango diren dirulaguntzak. Beti ere, duten interesa eta eragina Zumaia Udalaren xedeekin bat badatoz.

**1.- Objeto.** El objeto de esta convocatoria es regular los siguientes conceptos de subvención:

- La concesión, en régimen de concurrencia competitiva, de subvenciones destinadas a paliar el déficit económico ocasionado por asociaciones y clubes deportivos sin ánimo de lucro, para el desarrollo y realización de actividades de fomento de la formación específica y promoción deportiva, todo ello en el área del deporte y que, por su proyección e interés, coincidan con los objetivos del Ayuntamiento de Zumaia.

Dirulaguntza hauek, 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren IX. eranskinean jasota daude. (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).

Estas subvenciones se recogen en el Anexo IX del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia para el periodo 2024-2027. (Boletín Oficial de Guipúzcoa nº 243, de 20 de diciembre de 2023).

Berdintasuna bermatuko da Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duenari jarraituta, zehazki, 28. artikuluan oinarrituta, kultura jarduerari buruzkoa.

Se garantizará la igualdad en el marco del Decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, concretamente en su artículo 28 relativo a las actividades culturales.

**2.- Oinarri arautzaileak.**

Honako hauek arautuko dituzte dirulaguntza hauek:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaia Udalak eta bere erakunde autonomoek

**2.- Bases reguladoras.**

Estas subvenciones se regirán por:

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones por



dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).

- 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).
- Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

parte del Ayuntamiento de Zumaia y sus Organismos Autónomos (Boletín Oficial de Guipúzcoa nº 151, de 11 de agosto de 2020).

- Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia para el periodo 2024-2027. (Boletín Oficial de Guipúzcoa nº 243, de 20 de diciembre de 2023).
- Decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

### **3.- Aurrekontuko diru-hornidura**

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidetatik emango dira:

- 1 1300.481.341.00.01 2025 Kirol dirulaguntzak kirol elkarte edo talde federatuentzat 110.000€.

### **3.- Dotación presupuestaria.**

Las subvenciones a conceder a través de la presente convocatoria serán con cargo a la siguiente partida del presupuesto:

- 1 1300.481.341.00.01 2025 Subvenciones deportivas para asociaciones o clubes deportivos federados 110.000 €.

### **4.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak honakoak dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: jarduera sustatu eta hedatzeko programak garatzeko beharrezkoak direnak, hala nola, material gastuak, txapelketako desplazamenduak, entrenatzaile gastuak, formakuntza, anoa produktua eta. Beti ere jarduera garatzeko beharrezkoak badira eta, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31.art., Dirulaguntzen Lege Orokorrak, xedatzen duenarekin bat etorritik gero, hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duen jarduera sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia badute).

### **4.- Gastos subvencionables.**

Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases, como: los necesarios para el desarrollo de programas de promoción y difusión de la actividad, tales como gastos de material, desplazamientos en competición, gastos del personal entrenador/monitor, formación, avituallamiento. Siempre que sean necesarios para el desarrollo de la actividad, programas o acciones de promoción. (en todo caso, de conformidad con lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, es



decir, en relación con la promoción o fomento de la utilidad pública o de la actividad de interés social o finalidad pública).

#### **5.- Onuradunak eta diruz lagunduko diren jarduerak.**

Oinarri hauen bidez aratzen diren laguntzak ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirola sustatzeko eta irabazi asmorik gabeko izaera duten kirol elkarte eta taldeek eska ditzakete:

- Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta entitateen erregistroan izatea.
- Identifikazio fiskaleko kodea edukitzea eta betebeharrak fiskalei dagokionez egunean egotea.
- Bere egoitza soziala eta bere jardueren garapenerako azpiegitura Zumaia udalerrian edukitzea eta bere jardura nagusia esparru honetan garatzea ere.
- Eskola kiroleko foru araudia betetzea.
- Zumaia Udalaren euskara irizpideak betetzea.
- Kirol elkarte eta talde eskatzaileek eskaera eta aurkezteko epeei dagokienez oinarrietan zehaztutakoa bete beharko dute.
- Kirol elkarte edo talde bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake. Arau hauek hausten dituenari atzera botako zaizkio hark izenpetutako eskaera guztiak.

#### **6.- Onuradunen betebeharrak.**

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. Artikuluan eta Zumaia Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen

#### **5.- Personas beneficiarias y actividades a subvencionar.**

Podrán presentar solicitud de subvención aquellas asociaciones y clubes deportivos que organicen actividades de promoción deportiva que cumplan las condiciones que a continuación se relacionan:

- Haberse constituido con arreglo a la legislación en vigor y hallarse inscrito en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.
- Disponer de Código de Identificación Fiscal y hallarse al corriente de las obligaciones fiscales.
- Que su sede social y la infraestructura para el desarrollo de sus actividades se ubique en el municipio de Zumaia y que su actividad principal se desarrolle en dicho ámbito.
- El cumplimiento de la Norma Foral de Deporte Escolar.
- Cumplimiento de los criterios lingüísticos del Ayuntamiento de Zumaia respecto al euskera.
- Las asociaciones y los clubes solicitantes deberán cumplir con relación a la solicitud y a los plazos de solicitud lo establecido en las presentes bases.
- Cada asociación o club deportivo sólo puede presentar una solicitud. Se desestimarán todas las solicitudes suscritas por quien infrinja esta norma.

#### **6.- Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y en la Ordenanza Reguladora de la Concesión



Ordenantzan xedatutakoaz gain, honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea dirulaguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Zumaia Udalari.
- Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera hala objektibo, nola subjektibo aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitea.

de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia, son obligaciones de la persona beneficiaria:

- Destinar la subvención a mismo fin concreto para el que haya sido concedida.
- Aportar al Ayuntamiento de Zumaia cuanta información complementaria les sea solicitada.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- Realizar las gestiones necesarias para cumplir los requisitos establecidos en las presentes bases.

**7.- Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.**

**7.-Lugar y plazo de presentación de solicitudes.**

Eskabideak aurkeztu daitezke , pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki:

Las solicitudes podrán presentarse presencialmente o telemáticamente por personas físicas y únicamente telemáticamente por personas jurídicas:

Presentzialki Zumaia Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Presencialmente, las solicitudes se presentarán en el Registro municipal de Zumaia o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Telematikoki, udalaren egoitza elektronikoa sartuta, haren webgunearen bidez ([www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)).

Telemáticamente, por registro electrónico accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento, a través de su página web ([www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa.



**8.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.**

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaia Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kirolaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

**8.- Solicitudes y documentación a presentar.**

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado que figura en el Anexo I de esta convocatoria.

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el NODO de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención destinada a las entidades y asociaciones sin ánimo de lucro que realicen sus actividades en el ámbito de competencias del Área de Deporte. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:



- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Zumaia se realizará de oficio.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Deberán acompañarse a la solicitud los siguientes documentos:

- a) Eskara inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta. (1. Eranskina).
- a) Solicitud de subvención normalizada. (Anexo I).
- b) Pertsona fisikoak: NANaren kopia. Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NANA eta ordezkatzeko lege ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.
- b) Personas físicas: copia del DNI. Personas jurídicas: copia del CIF, DNI del representante legal y documento acreditativo de la capacidad legal de representación.
- c) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duen agiriaren fotokopia.
- c) Fotocopia del documento del Código de Identificación Fiscal.
- d) Eusko Jaurlaritzako elkarteen eta entitateen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- d) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades deportivas del Gobierno Vasco.
- e) Elkarteari dagokion federazioan alta ematearen fitxa edo ziurtagiria.
- e) Ficha o certificado de alta de la asociación expedida por la federación correspondiente.
- f) Dirulaguntza eskatzen den jardueraren gastuen eta diru sarreren aurrekontua elkarteko arduradunak sinatuta.
- f) Presupuesto de gastos e ingresos para la actividad solicitada, firmada por el responsable de la asociación.



- |   |  |
|---|--|
| <p>g) Udalarri dagokion entitatean informazioa eskatzeko baimena (1.eranskina). Eman ezean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean betetzen direla akreditatzen duten agiria.</p> <p>h) Beste instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena (2. Eranskina).</p> <p>i) Zinpeko aitortpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez, legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23.2 artikulua arautzen duen ildotik.</p> <p>j) Euskara bultzatzeko elkarearen ekarpena (3. Eranskina).</p> <p>k) Berdintasun ikuspuntuaren garapena elkartean (4.eranskina).</p> <p>l) Foru Aldundiak eskola mailako kirolari zuzendutako araudia bete (1. Eranskina).</p> | <p>g) En caso de no dar autorización al Ayuntamiento para recabar información de los entes pertinentes (Anexo.1), deberá entregar documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones, tributarias y de seguridad social.</p> <p>h) Declaración de solicitudes de subvención realizadas ante otras instituciones, organismos, o en su caso, de las que estuvieran otorgadas (Anexo.2).</p> <p>i) Declaración jurada de no hallarse sancionada con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello. Estas prohibiciones incluirán la contenida en virtud de discriminación por razón de sexo, en los términos previstos en el artículo 23.2 del decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.</p> <p>j) Aportación de la asociación a la promoción del euskara (Anexo.3).</p> <p>k) Desarrollo de la perspectiva de género en la asociación (Anexo 4).</p> <p>l) Cumplir la normativa foral para el deporte escolar (Anexo 1).</p> |
|---|--|

Zumaia Udaleko elkarteen eroldan izanez gero b), c), d), eta e) puntuan zehazten diren dokumentuak ez dituzte aurkeztu beharko.

En el caso de estar inscritos en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Zumaia no deberán aportar los documentos que se especifican en los puntos b), c), d), y e.)

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

En cualquier caso, además de la documentación relativa a la actividad presentada, el Ayuntamiento podrá requerir a las personas solicitantes



información adicional para la correcta valoración de la misma.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Si la solicitud no estuviera debidamente cumplimentada o no reuniera los requisitos establecidos, el órgano instructor requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles subsane la falta, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose sin más trámite, previa Resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la LPAC.

Organo izapidegileak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

El órgano instructor podrá recabar en cualquier momento la documentación original o complementaria que considere necesaria para acreditar mejor el exacto cumplimiento de las condiciones exigidas en las normas reguladoras de estas subvenciones.

#### **9.- Dirulaguntzak adjudikatzeko balorazio irizpideak**

#### **9.- Criterios de valoración para la adjudicación de las subvenciones**

Elkartek jasoko duen dirulaguntza balioa, eta biltzen duen puntu kopurua biderkatuz lortzen den emaitza izango da.

El valor económico calculado equivalente a un punto multiplicado por puntos que reúna la asociación, determinará la cuantía de la subvención otorgada.

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:

Para la concesión de las subvenciones se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

##### **A.- Lizentziak:**

- Lehiaketa erregularrak dituen elkartea: lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Aisialdiko elkarteak: lizentzia bakoitzeko 0,25 puntu.

##### **A.- Licencias:**

- Asociación con competiciones regulares: por cada licencia: 1 punto.
- Clubes de ocio: por cada licencia: 0,25 puntos.

##### **B.- Lehiaketa Esparrua:**

- Taldeak lehiaketa esparruan arabera:
  - Probintzia esparrua: 5 puntu.
  - Autonomia esparrua: 10 puntu.
  - Autonomien arteko esparrua: 15 puntu.
  - Estatuko esparrua: 25 puntu.

##### **B.- Ámbito de Competición:**

- Deportes de equipo, por ámbito de competición:
  - Ámbito provincial: 5 puntos.
  - Ámbito autonómico: 10 puntos.
  - Ámbito interautonómico: 15 puntos.
  - Ámbito estatal: 25 puntos.

- Banakako kirolak direnean, taldeak era honetan osatuko dira:

- En deportes individuales los equipos se compondrán de la siguiente forma:





- Pilota, modalitate guztietan, maila bereko gutxieneko lau jokalaririk behar dira talde bat osatzeko.
- Piraguismo, arrauna, txirrindularitza...: Taldeko izaera, maila ezberdinekin parekatzen da.
- Deportes de pelota, en todas sus modalidades, se requiere un mínimo 4 jugadores de una misma categoría para completar un equipo.
- Piragüismo, ciclismo, remo, etc.: el concepto de equipo se equipará al de diferentes categorías.

### C.- Kirol Teknikaria:

Elkartean jarduten duten kirol teknikariak izan beharko dira. Fitxa bakoitzeko:

- Oinarrizko kirol teknikaria titulua: 1 puntu.
- Erdi mailako kirol teknikaria: 3 puntu.
- Goi mailako kirol teknikaria: 6 puntu.

Kirol teknikarien titulutzat hartuko dira dagoeneko lortutakoak, bai denboraldian zehar lortzen ari direnak.

Elkarteko fitxa ez duten entrenatzaileen kasuan horrela justifikatuko da:

- Elkarteari bere lanak prestatzearen faktura normalizatua.
- Entrenatzaile titulu ofizialaren agiria.

Etorkizunean hezkuntzako titulazioa, kirolaren euskal eskolak bideratutako titulazioak balioztatuko direla jakinarazten da.

### D.- Lehiaketa izaera berezia:

Taldeek, diruz laguntzen den denboraldian Eusko Autonomia Erkidegotik kanpo, egutegi ofizialaren barneko Izaera Bereziko Lehiaketetara (eskualdeko edo txapelketa faseak direla eta) egiten dituzten irteerak kontuan hartuko dira, eta puntu banaketa honela egingo da:

{Km. Kopurua(joan-etorri) X lehiakide kopurua X txapelketa egun kopurua} / 1.500

### C.- Personal Técnico Deportivo:

Deberán ser personal técnico deportivo que realicen su actividad dentro de la asociación. Por cada ficha:

- Título básico de personal técnico deportivo: 1 punto.
- Título medio de personal técnico deportivo: 3 puntos.
- Título superior personal técnico deportivo: 6 puntos.

Se considerarán como títulos de personal técnico deportivo tanto los ya conseguidos como los que se estén obteniendo durante la temporada.

En el caso de personal entrenador que no tengan ficha en el club, se justificará de la siguiente manera:

- Factura normalizada de prestar sus servicios al club.
- Certificado de título oficial de entrenador y entrenadora.

Se notifica que en un futuro se valorarán como titulaciones de formación las otorgadas por la Escuela Vasca del Deporte.

### D.- Competiciones de carácter extraordinario:

A los clubes por traslados realizados durante la temporada, a competiciones de carácter extraordinario e integradas en el calendario oficial (fases de sector y campeonatos) que se celebren fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la distribución de puntos será el resultado de la siguiente operación:

{Número de Km (ida y vuelta) X número de competidores X número de días (campeonato)} / 1.500



Lehiakideak izango dira txapelketan parte hartzeko beharrezkoak diren pertsonak, hau da, txapelketako aktan jasoa daudenak.

Serán competidores las personas o participantes necesarias para el campeonato, es decir, los recogidos en el acta del campeonato.

Txapelketako aktak partaide gehigarrik (entrenatzailea, ordezkaria,) jasotzen ez bada, elkarteak zehaztuko ditu horiek; beti ere, ziurtagiriaren bitartez, horrela izan dela egiaztatzen badu

En el caso de que el acta no recoja ningún participante complementario (entrenador/a, delegado/a...) será el club quien los identifique, siempre que pueda acreditarlo efectivamente.

**E.- Kirol Materiala:**

Elkarterako den material erosketan erabilitako 400 € bakoitzeko puntu bat.

**E.- Material Deportivo:**

Se concederá 1 punto por cada gasto de 400€ utilizado en la compra de material para la asociación.

Kirol jantziak ez dute puntuatuko

El vestuario deportivo no puntuará.

**F.- Kirol materialen garraioa:**

Kirol materialen garraiatzeko derrigorrezkoa den ibilgailu bakoitzagatik 15 puntu.

**F.- Transporte del material deportivo:**

Se concederán 15 puntos por cada vehículo que sea necesario para transportar el material deportivo.

Justifikatzeko agiriak:

Documentación para justificarlo:

- Ibilgailua taldearen izatea eta bere izenean egotea.
- Urteko aseguru ordainduta izatea.
- Udaletxean alta emanda eta zerga ordainduta izatea.
- Taldearen garraiorako eta lanetako bakarrik erabiltzea.

- Ser el vehículo del club y estar registrado a su nombre
- Tener al corriente de pago el seguro anual.
- Tener el vehículo dado de alta en el Ayuntamiento y estar al corriente de pago del impuesto municipal.
- Utilizar el vehículo solamente para transporte y trabajos del club.

**G.- Euskara arloan betebeharrak:**

Udalarekin ahozko komunikazioak euskaraz egingo dira hala egiteko aukera dagoen guztietan.

**G.- Obligaciones del área de euskera:**

Las comunicaciones orales con el ayuntamiento se realizarán en euskera siempre que sea posible.

Zumaia udalari memoriak euskaraz edo elebitan, eta taula batean entrenatzaileen hizkuntza-gaitasuna eta saioetako hizkuntza (erabilera) zehaztu beharko dira.

Al ayuntamiento de Zumaia se le presentarán las memoras en euskera o en bilingüe y en una tabla hay que presentar la competencia lingüística y el uso del euskera en los entrenamientos de las/os entrenadoras/os.

Kartel, iragarki eta antzekoak euskaraz egingo dira (edo ele bietan euskara lehenetsita).

En los carteles, anuncios y demás se dará preferencia al euskera (euskera o bilingüe).



Bazkideekiko edo herritarrekiko komunikazioetan ere euskarari lehentasuna emango zaio.

También en los comunicados a los ciudadanos y ciudadanas, así como a los socios y socias se dará prioridad al euskera.

Kirol-ekitaldi eta lehiaketetan (sari banaketetan, etab.) megafonia jartzen denean euskarazko musikari lehentasuna emango zaio eta esataria euskaraz arituko da; horretarako arrazoi sendoak baleude, beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango dira, betiere euskarara lehenetsita.

En las competiciones y actividades deportivas, en donde hay megafonía, tendrán prioridad la música y el locutor en euskera; si hubiera otras razones, se podrán utilizar también otros idiomas, pero siempre primando al euskera.

Baloratuko diren alderdiak:

En el área del euskera, se valorarán los siguientes aspectos:

- Entrenatzaileen erabilera saioetan (taularen arabera): 4 puntu.
- Euskara bultzatzeko elkartearen ekarpena (3. Eranskina): 6 puntu
- Utilización del euskera por parte de las entrenadoras y los entrenadores en las sesiones (según la tabla): 4 puntos.
- Aportación de la asociación para la promoción del euskera (Anexo 3): 6 puntos.

**H.- Autofinantzaketa:**

Elkaratek antolatutako aparteko antolatutako aparteko jardueretan autofinantzaketaren ehunekoa.

**H.- Autofinanciación:**

Porcentaje de autofinanciación en las actividades extraordinarias organizadas por el club.

Autofinantzaketa			
Aurrekontuak	%75- %85	% 85- %99	%100
Aurrekontua a 1.000- 5.000 €	5 puntu	10 puntu	15 puntu
Aurrekontua 5.000-15.000€	10 puntu	15 puntu	20 puntu
Aurrekontua 15.000 –30.000€	15 puntu	20 puntu	25 puntu
Aurrekontua + 30.000 €	20 puntu	25 puntu	30 puntu

Autofinanciación			
Presupuesto	%75- 85%	%85- %99	%100
Presupuesto 1.000-5.000 €	5 puntos	10 puntos	15 puntos
Presupuesto 5.000-15.000 €	10 puntos	15 puntos	20 puntos
Presupuesto 15.000 – 30.000€	15 puntos	20 puntos	25 puntos
Presupuesto + 30.000 €	20 puntos	25 puntos	30 puntos

**I.- Boluntarioak:**

